

koak bildu dira Amatiñoren figura arriskutan ipiniz

STAREN KRISIA:

ERA

rala edo tenikoa besterik ez dela sines-
tea zaila da, ETBren sorrera eta ebo-
luzioa gertutik segitu duen edonork
susmatuko duen bezala. Horrexega-
tik, beste elementu batzu ere kontutan
hartu beharko ditugu.

«Deia», ETBko langileen babesa

Ikusgarria izan da egunotan «Deia»
egunkariak zer nolako segimendua eta
babesa eskaini dien ETBko langileen
erreibindikazioei, normalean egiten ez
duen bezala, eta beti ere Telebistaren
barruan egongo litzatekeen giro txar-
raren erakusgarri. Ikusgarria da ere
nola langileen erreibindikazioen al-
damenean oso eskas eta oso gutxitan
agertzen ziren ETBko zuzendaritzaren
argudioak. Hori guztia aipagarria da
lan-gatazketan enpresarioen defentsa
bere gain hartu ohi duen egunkari ba-
tetan (are gehiago beharko luke teo-
rian PNVren eskutan dagoen komu-
nikabide bati buruz ari bagara. Are
susmagarriagoa da «Deia»k tirabira
honetan hartu duen papera, kontutan
hartzan badugu zein modu errazean
nahasi dituen «Deia»k dimisio, dimi-
sio bortxatu eta kargu-uzte guztiak,
gisa berekoak balira bezala. Nahiko
argi ageri da «Deia»k nolabait ETBren
inguruko notizia ilun guztiak saku be-
rean sartzen saiatu dela, orokorrean;
Euskal Telebistaren 4. kanalaren in-
guruan halako ondo-eza sentsazio bat
sortzeko asmoz edo.

Izan ere, hor komeni da aipatzea
egon diren dimisio eta kargu-uzteen
artean Garaikoetxearen aldeko jelki-
deak ere badirela, eta beraz gaurko

**ETBko zuzendaria den Luis Alberto Aranbarriren buru
gainean mehatxu gogor bat hasi da bueltaka. ETB orain
arteko krisi gogorrena jasaten ari da egunotan, duela
hiruzpalau urte martxan jarri zen telebista honek orain arte
hazitako akats guztiak ageri-agerian geratzen ari direlarik.
Epe motzean izango diren aldaketa nagusiak tirabira
laboralei dagozkienak badira ere, epe luzean kolpe politiko
bat etortzea ere posibleena litzateke.**

ETBko buruen artean eman den gar-
biketa Garaikoetxea-Arzallus aferatik
guztiz kanpo dagoela. Horrek ez du
esan nahi batik bat «Deia»tik hasi du-
ten Amatiñoren imajina-zikintzea aski
geroago etorriko den lepo-mozketa
baten prestakuntza gisa planteiatua ez
denik.

Amatiñoren militantziaren apologia

Dena dela, badirudi Amatiño bera
badagoela interesatua gaurko istilu
hauek ikuspegi politiko baten ikus-
moldetik enfokatzen. Horrelako es-
plikazioa eman zuen, bederen, aurre-
neko greba-eguna baino lehenago
sektioz-sektio egin zituen bileretan.
Bertan bota zuen diskurtsoa honela
labur genezake: presupostuz ETBri
murriztu egin zaizkio bere posibilitate
ekonomikoak eta beraz dagoenarekin
konpondu behar; horrek eskatzen du
ETBko lagileek lan militanteari ekin
behar diotela horretarako —behar iza-
nez gero— ordu estrak ere sartuz; ho-
rrezaz aparte, Amatiñoren ustez Ar-
zalluszaleak halako galbaheketa bat
prestatzen ari dira bere burua mozte-
ko, eta horrekin batera —beti ere
Amatiñoren ustetan— Euskal Telebis-
taren euskalduntasuna neurri haun-
di-haundi batetan murrizteko; bere
kontrako maniobra politiko horren
kontra (presupostuen murriztea ere
tarteko dela) dei egin zien Amatiñok
langileei grebarik egin gabe militant-
ziari eutsi diezaioten.



*Amatiño, gero eta bakartiago dabilen
ETBko zuzendaria.*

Aldekoak ere baditu ETBko zuzendariak

Izan dira ere Amatiñoren alde
aposturik egin dutenak, nahita ala na-
higabe. Nahiko argi ematen bait du
gaurregun Amatiñoren bertsioa za-
baltzea haren kontrakoei arrazoiak
kentzea dela. Alde horretatik, eta ETB
barruko sektore gehienak eta bere
partiduko beste hainbat kontra baldin
badauzka ere, Amatiñok topatu du
han hemenka babesik: inportanteena,
agian, Vasco Press notizi aientzia be-